

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A eredua)
2012/2013 IKASTURTEA

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu (A edo B)

A AUKERA

Gero eta denbora gutxiago daukagu lagunekin ateratzeko

Eustat erakundearen datuen arabera, azken hamabost urteetan 32 minutuz murriztu da biztanleriak "bizitza sozialari" (lagunekin irten, hizketan jardun, e.a.) eskaintzen dion batez besteko denbora. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) estatistika ofizialak egiten dituen erakunde honek eskuartean dituen datuen arabera, beraz, bazterrean uzten ari gara gure lagunak.

Datu hauen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 16 urtetik gorako biztanleriak denbora gehiago ematen du gaur egun behar fisiologikoetan eta zainketa pertsonaletan (+16 minutu), lanean/prestakuntzan (+14 minutu), aisia aktiboan eta kirolean (+11 minutu), joan-etorrietan (+10 minutu), eta besteren bat zaintzen (+9 minutu), eta gutxiago bizitza sozialean (-32 minutu); etxeko lanetan ez dago aldaketa handirik.

Azken bost urteetan bazkaltzeko denboran badira aldaketa nabarmenak: etxean bazkaltzen 21 minutu gutxiago ematen dugu; etxetik kanpo bazkaltzen, berriz, 3 minutu gehiago behar ditugu. Eta aisiarako —aktibo zein pasiborako— batez besteko denbora eguneko 23 minutuz hazi da, eta "gizarte bizitzarako" 20 minutuz murriztu da.

IKT teknologiek lotutako aisia nabarmen hazi da azken urteetan; biztanleriak batez beste 13 minutu eskaintzen dizkie ordenagailuari eta Interneti, orain bost urte baino ia bi aldiz gehiago. Gizonezkoek parte-hartze handiagoa dute jarduera horietan emakumezkoek baino.

Hamabost urtetan "gizarte bizitzako" batez besteko denbora murriztu egin da, ordubete eta 10 minututik 38 minutura.

16 urte eta gehiagoko biztanleriaren erdiak baino zertxobait gutxiagok —%44,2k— ordubete eta 26 minutu eskaintzen dizkie egunero gizarte-bizitzarekin erlazionatutako jardueri, esate baterako, lagunak bisitatzeari, solas egiteari, alderdi politiko edo elkarteetan parte hartzeari eta praktika erlijiosoei.

Solasean —batez ere aurrez aurre— aritzen direnen denbora egunean 23 minutuz laburtu da. Larunbat eta igandeetan, batez besteko hori ordubete eta 1 minutura eta ordubete eta 4 minutura luzatzen da, hurrenez hurren.

HABE aldizkaria, 413 zkia.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi artean dagoen zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du.)

- 1) Aditza iraganean jarri: eskaintzen dion (2), egiten dituen (3), behar ditugu (12), eskaintzen dizkie (15). (1 puntu)
- 2) Eratorpen atzizki bera duten beste hiruna hitz eman: zainketa (6), prestakuntzan (7), ordenagailuari (15), jarduera (16), egunero (20). (1 puntu)
- 3) Testuingurua kontuan hartuz sinonimoak eman: murriztu (1), irten (2), jardun (2), lagunak (4), hazi (13). (1 puntu)
- 4) Testuaren ulermena: Zein arlotan murriztu dugu denbora eta zeinetan irabazi? (1,5 puntu)
- 5) Testuaren ulermena: Zein da testuaren tesi nagusia? Azaldu zergatik. (1,5 puntu)
- 6) Idatzi testuari edo gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A eredu)
2012/2013 IKASTURTEA

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu (A edo B)

B AUKERA

Pintxo-poteorako aukera Gipuzkoan barrena

Gasteizen urteetan bizirik egon den ohitura da pintxo-poteoa, 1€ edo 1,50 €-ren truke edaria eta pintxoa, biak, eskaintzen duen promozioa.

Arrasateko ostalariak herriko giroa bizitu nahi zuten, eta ekintza edo promozioen bat egitea bururatu zitzairen. Azkenean, Gasteizko ideia aproposa zela iruditu zitzairen eta martxan jarri zuten. Eztabaidak izan ziren prezio eta egunaren inguruan. Baina, duela urte batzuk ostegunetan egoten zen giroa kontuan hartuta, eta upeltegiekin prezio eta eskaintzak adostu ostean, ostegunak aukeratu zituzten euro baten truke pintxo bat eta ardo ondu bat eskaintzeko.

Promozioak herrian izan zuen arrakasta ikusita, garagardoa ere euro batean eskaintzen hasi ziren, baita cava ere egun berezietan. Gaur egun, finko mantendu dute cava pintxo-poteoan. Ordutegia 18:00etatik 21:00etara bitartekoa da, baina askok, eskaintza bukatu arren, gauera arte luzatzen dute euren pintxo-poteoa.

Atsedena ere behar du pintxo-poteoak. Abuztuan eta Aste Santuan ez dute promozioa eskaintzen, baina, gainontzeko hilabeteetan ez diote ostegunetako hitzorduari hutsik egiten.

Hasieran, helduak ziren kalera irteten zirenak. Baina, azken urtean, gazteak ere gehitu dira ekimen honetara eta, gaur egun, adin guztietako jendea aurki daiteke pintxo-poteoan.

Arrasaten izandako arrakasta ikusita, tabernari askok berehala ezarri zuten promozioa beraien herrietan. Krisiari aurre egiteko modu egokia da eta, bide batez, herrietako giroa hobetzen da. Herri bakoitzak bere modura ezarri du promozioa: batzuek eguna aldatu dute, beste batzuek, aldiz, prezioa.

Arteman Komunikazioa, *HABE* aldizkaria, 423 zkia., 2011.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi artean dagoen zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du.)

- 1) Aditza orainean jarri: bururatu zitzairen (4), aukeratu zituzten (7), hasi ziren (9), ezarri zuten (16). (1 puntu).
- 2) Berridatzi esaldi hauek aldaketa morfosintaktikoez baliatuz (1 puntu):
 - ... urteetan bizirik egon den ohitura...(1). (_____ ...-dako _____).
 - ... eskaintza bukatu arren ... (10). (nahiz _____).
 - ... helduak ziren kalera irteten zirenak (14). (_____ bakarrik _____).
 - Arrasaten izandako arrakasta ikusita, (16). (_____ izan _____).
- 3) Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoak eman: egon (1), jarri (5), bukatu (10), euren (11), irteten (14). (1 puntu)
- 4) Testuaren ulermena: Zergatik sortu da pintxo-poteoaren promozioa? (1 puntu)
- 5) Testuaren ulermena: Zein da pintxo-poteoaren garaia eta sasoia? Zergatik? (1 puntu)
- 6) Testuaren ulermena: Nori zuzenduta dago promozio hau? (1 puntu)
- 7) Idatzi gutxienez 150 hitz testuari edota gaiari buruz. (4 puntu)

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
2012-13 IKASTURTEA

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA: "A" EREDUA

Zuzentzeko, ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak

A. Azterketaren zatiak eta puntuazioaren banaketa

- 1.- Gramatika galderak → 3 puntu
- 2.- Ulermen galderak → 3 puntu
- 3.- Idazlana → 4 puntu

B. Edukiak eta galdera motak

1.- "*Gramatika galderak*" zatian bi edo hiru galdera izanen dira eta orotara 3 puntu balioko ditu. Honako arlo hauetaz galde daiteke:

1.1.- *Sinonimoak*. Ikasleak testu horretan bertan txertatzeko moduko kide berdintsua eman beharko da.

1.2.- *Eratorpen atzizkiak*. Ereduko eratorpen atzizkia aintzat hartuz, atzizki hori bera duten hitz berriak eman beharko dira.

1.3.- *Berridazketak*. Aldaketa morfosintaktikoak egin behar dira; ez da ontzat hartuko hiztegi mailako aldaketak egitea. Beti ere, testuko ereduaren adierakidea izan behar du. Hitz gakoa emanen da.

1.4.- *Aditzak*. Aditzaren aldia-aldaketa eskatuko da, orainetik iraganera igarotzea edo alderantziz.

2.- "*Ulermen galderak*" zatian bi edo hiru galdera izanen dira, orotara 3 puntu balio duelarik.

Bi motako ulermen galderak izan daitezke: zehatzak eta orokorragoak. Galdera zehatzak testuari buruzko galdera zuzenak izanen dira, ikasleak informazioa testuan bertan bilatu eta emateko. Edo galdera orokorragoak ere izan daitezke ikasleak ulermen orokorra lortu duen jakiteko helburuarekin: laburpen bat egitea (kasu honetan 50 bat hitzekoa), gaia antzematea eta azaltzea bi edo hiru lerrotan, testuko ideia nagusiak ematea 4/5 lerrotan, testu osoan zehar informazioa bilatzea...

3.- "*Idazlana*" zatiak 4 puntu balioko ditu eta testuko gaiari buruz edo gaiak iradokitzen duenari buruz gutxienez 150 hitzeko testua idatzi beharko da.

C. Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak

Azterketak —aukera zein baita ere— hiru sail edo zati nagusi izanen ditu: gramatikarena, idatziaren ulermenarena eta idazmenarena.

1.- "Gramatika galderak" sailean bi edo hiru galdera izanen dira eta orotara 3 puntu balioko ditu. Honako arlo hauek hartuko dira aintzat: sinonimoetan, testuan txertatzeko moduko kide berdintsua eman den; eratorpenari dagokion arloan, ematen diren hitz atzizkidunak zuzenak diren edo ez; berridazketetan, aldaketa morfosintaktikoak egin behar dira (ez da ontzat hartuko hiztegi mailako aldaketak egitea) testuko ereduaren adierakidea emanaz; eta aditzetan, aldiaren aldaketa zuzen-egina dagoen begiratuko da. Galdera bakoitzean 4/5 item izanen dira, eta item bakoitzak —bere osotasunean— ongi egon behar du 0,25/0,2 kontatzeko.

2.- "Ulermen galderak" sailean bi edo hiru galdera izanen dira, orotara 3 puntu balio duelarik.

Bi motako ulermen galderak izan daitezke: zehatzak eta orokorrakoak. Lehenbizikoak testuari buruzko galdera zehatzak, zuzenak, izanen direnez, informazioa bilatu eta ongi emana dagoen begiratuko da. Hauetan, jakina, kontuan hartuko da erantzun horiek zuzen dauden, hau da, eskatutakoari lotzen zaion eta informazioa egoki eman den. Galdera orokorragoetan aintzat hartuko da ikasleak emandako erantzuna egokia eta zuzena den, hots, testuaren edo testu-zatien edukia, oro har, ulertu duen. Orobat, kontuan hartuko da ikasleak eman dituen erantzun horiek hizkuntzaren aldetik ongi taxutuak dauden.

3.- "Idazlana" sailak 4 puntu balioko ditu eta testuko gaiari buruz edo gaiak iradokitzen duenari buruz gutxienez 150 hitzeko testua idatzi beharko du ikasleak.

Gutxieneko hitz kopurua eman behar da. Horretaz gain, sail honetan bi alderdi edukiko dira kontuan: ematen den gaia ikasleak nola garatzen duen eta erabiltzen duen hizkuntza nolakoa den. Lehen alderdian hainbat erreferentzi puntu izanen dira zuzentzeko eta ebaluatzeko garaian: idazlanaren koherentzia, egitura, antolaketa, argudioen heldutasuna, gaiarekiko lotura, sormena, originaltasuna, jakintza entziklopedikoen erabilera, beste gaiekiko lotura, e.a. Hizkuntzaren alderdiari dagokionez, berriz, beste hauek hartuko dira aintzat: idatzitako testuaren egokitasuna, kohesioa, zuzentasun gramatikala, ortografia, estiloa, hiztegiaren aberastasuna, e.a.

Baina kontuan hartu behar da, idazlanean bereziki zuzendu eta ebaluatuko dena idazlanaren kohesioa eta zuzentasun gramatikala izanen dela.